

Zerga-politika modu errazean azalduta



ELA
EUSKAL SINDIKATUA



Zerga-politika modu errazean azalduta

1. LEHENENGO ETA BEHIN: ZERTAN DA FISKALITATEA?

Zergak ulertzea dirudiena baino errazagoa da. Funtsezko alderdiei dagokienez behintzat. Herri-administrazioek behar besteko diru-sarrerarik eduki ezean, ezinezkoa da gizarte politika egokia izatea. Osasungintza, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, pentsioak, gizarte-prestazioak eta garraio publiko egokiak eduki nahi baditugu, zergen bidez ordaindu behar dira. Horregatik, gizarte-arloan aurreratuen dauden herrialdeak (Suedia edo Danimarka) izaten dira zergapetuenak. Eta, bide batez esanda, enplegu eta gizarte-kohesioko emaitzetan lehenak ere badira. Bistan denez, garrantzi handikoa da ogasunek behar besteko zergak biltzea.

Funtsezkoa da, halaber, **zergak gaur egun baino modu zuzenagoan ordainaraztea**. Bestela esanda, zenbat eta gehiago irabazi, orduan eta gehiago ordaindu behar da. Orain arte nomina kobratzen dugunok (soldatapekoak, langabeak, erretirodunak) gehiago ordaindu behar izan dugu, enpresa- edo kapital-errentetatik bizi direnek baino (enpresariak, profesionalak, errentadunak, burtsako inbertsiogileak eta etxegintza-iruzurren bultzatzaileak).

Foru-ogasunek zergak kudeatzen dituzte. **Iruzur fiskalari** aurre egiteko ahalmena haien eskuetan dago. Eta ez dute ataza hori ondo bete, ezta hurrik eman ere. PFEZ, Sozietateen gaineko Zerga edo Ondarearen gaineko Zerga arautzea ere foru-ogasunen eskumena da, nahiz eta horretan Eusko Jaurlaritzak ere bere parte hartzea izan.

Fiskalitatea ere loturik dago demokraziarekin. Orain arte erabakiak ezkutuan hartu dira hemen, eta horrela egiten jarraitzen dute. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak isil-gordean biltzen dira, eta gero han harturiko akordioen berri ematen dute jakitera. Sindikatuei ez zaie batere partaidetzarik eman, ezta formala ere. Hori bezalakorik ez dago beste inon European.


Hori ikusita, guk gardentasuna eta partaidetza-bideak eskatzen ditugu, gure proposamenen alde agertzeko, eta sistema fiskalaren aldaketa erreklamatzeko. Baina hori lortzeko ez dago beste biderik, antza, mobilizazioa baino. Esandako horretan datza fiskalitatea. Ez da horren zaila, ezta?

2. HARIRA JOZ. ZER DA PRESIO FISKALA ETA ZERGATIK DA HAIN GARRANTZIKOAK?

Nazioarteko esparruan hainbat aldagai erabiltzen da zerga-arloko konparazioak egiteko. Neurtu ohi den lehenengo gauza presio fiskala da. **Zer da presio fiskala?** Presio fiskala da halako lurralde batean zerga-mota guztiak, gizarte-kotizazioak eta tasak ordaintzera bideratzen den aberastasunaren zatia. Hau da, euskal ekonomiak edo Europakoak 100 euro sortuko balu, zenbat euro bilduko lukete herri-administrazioek?

Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek, 100 euro bakoitzeko, 28'8 euro biltzen dituzte bakarrik. Sorturiko aberastasunaren %71'2 esku pribatuetan geratzen da.

Zelako garrantzia du datu horrek? Konparazio homogeenak egiteko bide ematen digulako. Izan ere, Europako batez besteko presio fiskala Barne Produktu Gordinaren %38'4koa da, gurea baino ia 10 puntu handiagoa. Horregatik, han duten ongizate-estatua hemengoa baino hobea da. Han, esku pribatuetara doan aberastasunaren zatia txikiagoa da, eta beraz gizarte-beharrizanak betetzeko diru gehiago bideratzen dute.




Europako batez bestekora iritsi ahal izateko (oraingo aipamena ez da Suedia, batez bestekoa baizik), EAEn urtean biltzen dena baino 6.500 milioi euro gehiago bildu beharko litzateke. Ideia bat izateko, diru-kopuru hori handiagoa da Eusko Jaurlaritzak Osasungintzan eta Hezkuntzan gastatzen duena baino.

Foru-aldundiek, patronalak eta komunikabide nagusiek ezkututzen dute datu hori, alegia, hemengo presio fiskala oso txikia dela. Aurrerago ikusiko dugu, gainera, karga fiskal hori zelan banatzen den. Europako gizarte-sistema izan nahi badugu, Europako presio fiskala eskatu behar dugu.

3. ZERGATIK HEMENGO DIRU-BILKETA URRIAGOA DA EUROPAKOA BAINO?

Erantzuna ez da batere zaila. Hemengo ogasunek diru-bilketa urriagoa egiten dute ondoko arrazoi hauengatik:

- Lanekoak ez diren errentetan iruzur fiskala itzela da, gero eta handiagoa; eta horren aurka ez dute ezer egiten. Horrela, urtean 3.000 milioi euro gutxiago biltzen dira.
- Halaber, urtean milaka milioi euro gutxiago biltzen dira, errenta handienekoei, enpresei eta kapitalari egiten zaizkien opariak direla-eta: PFEZen 11 puntu jaitsi zaizkie errentarik altuenei, gehikortasuna (progresibitatea) kendu zaie interesei, dibidenduei eta alokairu-errentei, Sozietateen gaineko Zerga 7 eta 11 puntu bitartean jaitsi da, Ondarearen gaineko Zerga kendu da, eta abar.



EAEn gutxiago biltzen bada, politika fiskala bidegabea delako da. Horrela, uko egiten zaio diru-kopuru itzelak biltzeari, nahiz eta behar-beharrezkoak izan gizarte-gastua handitzeko, enplegua sortzeko, eta jendearen bizimodua hobetzeko.

4. ZERGATIK ESATEN DUGU IRUZUR FISKALA OSO HANDIA DELA, ETA GAINERA EZ DELA ZIGORTZEN?

Hori esaten ez gara gu bakarrak. Horretaz konturatzeko, nahikoa da datu ofizialei apur bat erreparatzea:

- Langileek PFEZen aitortzen duten errentaren batez bestekoa 21.274,42 eurokoa da. Enpresariak eta profesionalek, ordea, aitortzen dituzten diru-sarrerak, urtean, 13.140 eurokoak dira. Langileon urteko diru-sarrerak, enpresariak eta profesionalenak baino, 8.134 euro gehiagokoak izatea nahiko deigarria da, eta argiro erakusten digu zenbaterainoko iruzur fiskala dagoen soldatapekoak ez diren errentetan.
- Bidegabekeria sozial larri hori ez da hor bukatzen. Azken 3 urteotan lanaren batez besteko errenta, aitorturikoa, bi aldiz gehiago igo da, enpresariak aitortzen dutena baino. Hori dela-eta, bi errenten arteko aldea are gehiago handitu da, 1.156,65 euro handiagoa da orain, lehen baino.
- Enpresetako %67,72ek Sozietateen gaineko Zergaren Aitorpenean galerak edo 6.000 eurotik beherako etekinak adierazten dituzte. Datu horiek ere ez dira batere sinesgarriak. Azalpen bakarra, PFEZen bezala, iruzur fiskala erabat hedaturik dagoela da.
- Soldatapekoak ez diren errentetatik ezta %1 ere ez da ikuskatzen urtean. Eta iruzurra 4 urtera iraungiko da. Errenta horietako bat ikuskatzeko probabilitatea 100 urterik behin izatekoa da, eta harrapatzekotan azken 4 urteak ordainarazten dituzte. Bistan denez, horrela iruzurra sustatzen ari dira.

Foru-ogasunek ondotxo dakizkitez datu horiek, eta askoz datu gehiago, jakina. Orduan, hain agerikoa izanik zergatik saiatzen dira ezkututzen? Zergatik diote egunero iruzurrari aurre egiten diotela, hori horrela ez bada?

ELAk urte askotan iruzurra salatuz aritu eta gero, ondorio hau atera dugu: iruzurgileak ogasunekin ados jarrita daude. Hori horrela ez balitz, datuak bestelakoak izango ziren, eta bilakaera ere ez zen izango horren txarra.



5. NORK ORDAINTZEN DU GEHIEN? LANGILEEK ALA ENPRESARIEK, PROFESIONALEK ETA KAPITALAK?

Aipaturiko datuak lagungarriak dira, neurri batean behintzat, galderari erantzuteko. Soldatapekoak ez diren errenten jasotzaileek hain diru-sarrera edo etekin urriak aitortzen badituzte, nekez ordainduko dute zerga askorik.

EAEn, 2010. urtean, zuzeneko zergetatik (PFEZ edo Sozietateen gaineko Zerga —errentaren edo diru-sarreraren arabera ordaintzen direnak—) jasotako diru-bilketa aztertuz gero, ondorioak argiak dira:

- Langileok 4.308 milioi euro ordaindu genuen PFEZen.
- Enpresarien eta kapitalaren errentek (Sozietateen gaineko Zerga gehi PFEZ —soldatapekoak ez diren errentak—) 1.472 milioi euro ordaindu zuten soilik.
- Beraz, lanaren errentek egiten duten ekarpena hiru bider handiagoa da, enpresarien eta kapitalaren errentek egiten dutena baino.

Adibide horrek argiro erakusten digu zein gaizki dagoen banaturik presio fiskala errenta-mota desberdinen artean.

Errenta-moten arteko alde hori, gainera, handituz joan da azken urteotan, iruzur fiskalarekin gertatu den bezala; hori horrela, lasai asko esan daiteke bidegabekeria fiskala gero eta larriagoa dela.

Ezin da besterik esan. Hemen, nominadunok bakarrik ordaintzen ditugu zergak. Gainerako gizataldeek eta errenta-motek egiten duten ekarpena askoz txikiagoa da, dagokiena baino.

6. ZER GEHIAGO DAKARKIGU POLITIKA FISKAL OKERRAK?

Iruzuraren aurka jotzeak egiazki eta, eta errenta handikoenei, enpresei eta kapitalari azken urteotan onetsi zaizkien zerga-beherapenetan atzera egiteak zerga politika aldatzea dakar.

Baina, horrez gain, oraingoa bezalako krisi-garaian politika fiskala aldatzea inoiz baino beharrezkoagoa da. Azken urteotako politikek hondamendira garamatzate halaberrez:

- EAEko langabezia-tasa %14koa da, Europako Batasuneko batez bestekoaren oso gaineratik (%9,7). Eta goraka doa, beste leku batzuetan baino azkarrago.
- Aurrekontu-murrizketek zerbitzu publikoen kalitatea narrasten dute (osasuna, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak...)
- Lan- eta gizarte-eskubideak (pentsioak, gizarte-prestazioak eta abar) kimatzen ari dira arian-arian.

Herritarren gutxiengo bat aberasten ari da, gehiengo pobretzearen kontura. Desberdintasunak gero eta handiagoak, mingarriagoak eta bidegabeagoak dira.

Bidegabeko politika horiek guztiak bi premisatetik abiatzen dira: defizit publikoari oso muga estuak ezartzea; eta politika fiskala aldatzeko "ezintasuna" eta, hortaz, zerga gehiago biltzeari ukatzea.

ELAk bi premisak gaitzesten ditu. Defizit publikoa mugatzea edo debekatzea pertsonak edo enpresak zorpetzeko debekua balego bezalako da. Ez dago arrazoi ekonomikorik irizpide murriztaile horiek zuzitzen dituenik.

Garden geratu denez, oraingo politika fiskala aldatzea ezinezkoa baino beharrezkoa da. Aldaketa hori egiteari uko eginez gero, oraingoa bezalako krisi-garai batean, areagotu egingo dira atzeraldia bera, langabezia eta gizarte-estalduren murrizketak.

7. ZER PROPOSATZEN DU ELAK FISKALITATE-ARLOAN?

ELAk hainbat proposamen egin izan ditu fiskalitate-arloan. Azkena irailaren hasieran egin genuen, orduan "ELAren proposamenak, foru-aldundien gobernu-jarduerarako" delako agiria bidali genien aldundiei, hainbat gairen gaineko gure ikuspuntuak emanez.

Zeintzuk dira proposamenik premiazkoenak?

a) Iruzur fiskalaren jazarpena

Soldata ez diren errenta guztiak iruzurra preskribatu baino lehen ikuskatzea. Honek eskatzen du giza-baliabideak zeharo gehitzea, ikuskapen kopurua asko hasiko baita.

Zergak gutxiago ordaintzeko aukera ematen duten zirrikituak sakon aztertu eta gero kentzea; eta aldian-aldian iruzur fiskalari buruzko ikerketak egitea.

b) Zerga-arauen aldaketa

Azken urteotan PFEZ, Sozietateen gaineko Zerga, Ondarearen gaineko Zerga eta Oinordetzaren gaineko Zergan onarturiko erreformak atzera itzuli behar dira.

PZFEren erreformek zerga-eskalan galdu den progresibitatea berreskuratu behar dute eta kapital-errentek duten pribilegioa kendu behar da. Errenta guztientzako tratua bera ezarri behar da.

Sozietateen gaineko Zergan tasa nominal bakarra ezarri behar da, %35ekoa alegia eta kenkari fiskalak erabat murriztu.

Ondarearen gaineko Zerga berriz ezarri behar da, baina foru-ogasunek kendu zutenean baino harago joan behar du.

c) Parte hartze sozialerako bideak

Zerga-politika definitzeko parte-hartzezko prozesu bat egin behar da, eta horren baitan sindikatuek partaidetza izango duten bide instituzionalizatuak pairatu behar dira. Halaber, gizarteari gai honekiko kontsulta egitea ere zerga erreformak egiterakoan erabili beharreko bitarteko izan behar da.

Guk politika fiskala goitik behera aldatzea proposatzen dugu. Gai honi buruzko eztabaida ezin da amaitutzat jo itxurazko apaingarri batzuk ipiniz, eta gutxienezko aldaketa batzuk sartuz; horrela gauzak dauden bezala geratuko lirateke. Ez da nahikoa Ondare Zerga berriro ezartzea eta zerbait gehiago egitea, ez. Ez da onargarria eztabaidari amaiera eman nahi izatea, baldin eta gizarteari ez bazaio parte hartzeko biderik eman.



8. ZELAN BIDERATUKO DITUGU GURE PROPOSAMENAK?

- Berehala kontuan hartzeko exijitzen jarraituko dugu. Jakin badakigu gure proposamenak bidezkoak direla.
- Azalduko dugu, beraz, zergatik den beharrezkoa aldaketa. Eta horixe da, hain zuzen, argitalpen honen helburua.
- Mobilizatu egingo gara aldaketa bultzatzearen. Ez da aski arrazoia izatea. Guk bultzatu ezean, politikak ez dira berez aldatuko.

9. AUSARTA IZAN ETA ESKATU FISKALITATEA ALDATZEKO.

Beharrezkoa da politika fiskalak erabat aldatzea. Ea lortu dugun zu beharrian horretaz jabetzea. Ez baita gutxi. Dena dela, hori ere ez da nahikoa. Den-denok bultzatu behar dugu aldaketa.

Gure oraingo erronka aldaketa eskatzea eta zergatiak azaltzea da. Ez da horren zaila, batez ere arrazoia gure alde dagoelako.

Horretaz hitz egin behar da lankideekin, etxekoekin, kaleko lagunekin... Hala eginez gero, aurrerapausoa nabaria izango da, eta politikariek jasan beharko dute oraingo egoera onartzen ez dugunon presioa eta salaketa.

Gure herriko langileen aurka ari dira, eta hori ez dugu inola onartuko.